






MAIALEN LUJANBIO:
**«KOSTA EGITEN DA EMAKUMEEN LORPENAK AITORTZEA,
ETA TXAPELA IRABAZTEA, SINBOLIKOKI, PAUSO BAT DA»**

KARLOS CORBELLA

Ale honetan ere...

-  IRITZIA: Bertsolaritza, definizio berri baterantz?
-  Elkartu: Oztopo arkitektoniko eta digitalik gabe
-  Berdintasunerako Defentsa erakundea Emakunderen barruan osoki txertatu da



JONE MIREN HERNÁNDEZ
GIZARTE ANTROPOLOGIA IRAKASLEA. UPV-EHU

Bertsolaritza, definizio berri baterantz?

Villabona 1801 urtea. Herriko plazan 4.000 pertsona bildu dira. Otsaileko egun batean, inauteriak direla eta, bi bertsolarien arteko desafioa iragarritako dago. Irabazleak urrezko bost ontza eramango ditu. Hiru pertsonek hartu dituzte epaile lanak. Juan Ignazio de Zabala (Amezketakoa) eta José Joaquín de Erroicena «Txabalategi» (Hernanikoa) bi orduko saioa burutzeko prest daude.

Gertaera hau bertsolaritza garaikidearen hasiera ofizialtzat jotzen da. Aurretik baziren bertsolariak eta (nolabaiteko) bertso saioak, baina horien inguruko testigantzak modu soltean eta isolatuan iritsi zaizkigu. Bertsoak, erromantzeak, koplak, kantzak, eresiak... bizitzari eta egunerokotasunari loturiko adierazpenak ziren. Halere, 1935 urtearen inguruan herriko adierazpen hauek ikerketa objektu bilakatu ziren. Manuel Lekuonak, ahozko literaturaren esparruan kokatu zuen bertsolaritza eta geroztik horrekiko interesa zabaldu eta handitu egin da. Egun, Euskal kultura eta Euskal gizarte ulertzeko ezinbesteko elementua bihurtu da.

1980. eta 90. hamarkadetak berrikuntza nabarmenak ekarriko zizkioten bertsolaritzari. Toki garrantzitsu bat bereganatzen du, oro har, komunikabideetan eta bereziki telebistan. Txapelketen oihartzunak masa fenomeno bilakatzen ditu bertsolariak Euskal Herrian. Urte hauetan transmisioaren kezka ere nabarmentzen da eta horren ondorio dira bertso eskolen sorrera eta garapena.

Halere, aldaketa nabarmen hauek ez dira nahikoak izan bertsolaritza guztiz eraldatzeko. Horregatik, agian, ditu bertsolaritzak hain oinarri sendoak egungo Euskal kulturaren esparruan ere. Ikuskizun bihurtuta edo gabe, bertsolarien lanaren oinarrian betiko elementuak topatzen ditugu: hitza, doinua eta bapatekotasuna publiko aurrean. Bere proposamena guztiz minimalista da, sinpleen artean sinpleena. Eta kooperatiboa. Bertsolariaren ikuspegitik publikoa ezinbesteko agentea da, izan ere bertsoak publikoarengana iristen denean bakarrik hartzen du zentzua. Gutako bakoitzak bereganatzen eta barneratzen ditu bertsolariaren hitzak. Irentsi eta hausnartu egiten ditu. Hor borobiltzen da bertsoa. Gainera, behin barneratuta denboran zehar iraun dezake. Bergorotutako bertsoak berriz kantatu daitezke, emozioak piztuz eta berpiztuz.



«Bertsolaris» de Valentín de Zubiaurre.

BETI IZAN DIRA EMAKUME BERTSOLARIAK

Honaino oinarritzko zertzelada batzuk bertsolaritzaren izaera zer den eta zertan datzan ulertzeko. Eta bertsolariak? Zeintzuk izan dira bertsoen sortzaileak eta egileak? Azkenengo bi mendetan, nagusiki, gizonak, plaza-gizonak. Esparru publiko ezberdinetan ez ezik (herriko plazak), tabernetan eta sagardotegietan aritzen ziren bertsolariak. Jende aurrean, giro informaletan gehienetan topatzen ditugu XIX. eta XX. mendeko bertsolariak. Dibertsioa zuten gustuko, alaitasuna eta umorea zuten ardatza euren zereginetan baina, aldi berean, hausnarketarako joera eta zentzu handiko diskurtsoak osatzeko gaitasuna aitortzen zitzaizkien. Plaza-gizonak herriaren ahotsa irudikatzen zuten.

Eta, emakumeak? Zein izan da bere zeregina bertsolaritzaren sorreran eta garapenean? Beti izan dira emakume bertsolariak. XV. mendeko dokumentuetan emakume bertsolariak aipatzen dira. Kantu epikoen edo eresien egileak ziren. Eta horregatik zigortuak izan ziren. 1452ko Bizkaiko Foruan espresuki debekatu ziren emakumeen kantu eta koplak publikoak. Debeketaraino iritsi baziren pentsa daiteke euren protagonismoa ez zela edonolakoa izango. Oztopen gainetik ere, emakumeak kantuan eta bertsotan jarraitu zuten, hori bai euren agerpen publikoak murriztuz joan ziren.



Emakumeen bizipenez, emozioez, doinuez, nahiez eta aldarrikapenez beteko dira bertsoak, denon bertsolaritza irudikatu ahal izateko.

Carmen Larrañagak egindako lanari esker XX. mendean aritu ziren hainbat emakume bertsolariren bizitza eta sormen lanak ezagutu ditugu. Biografia horietan erreparatzen bada, XX. mendean eta XXI. mendearen hasieran emakume bertsolarien kopuru murritzaren zergatia argiago azalduko zaigu. Esan den moduan, tabernak, sagardotegiak eta herriko plaza bertsolaritzaren ohiko eszenatoki gisa finkatzen dira. Garaiko ideologiak agintzen zuenaren arabera etxeko esparrua (pribatua) zen emakumei naturalki atxikitutako esparrua; kalekoa (publikoa) aldiz gizonei egokitzen zitzaien. Emakume aitzindari hauen hitzetan normalean bertsoak entzuten ziren tokietan ez zegoen ondo ikusita emakumeak aritzea, ez behintzat hizlari edo bozeramaile moduan. Horregatik, emakume batzuk bertsolari izateko grina aitortzen bazuten ere, bakarrik gune zehatzetan aritu ahal izango zuten: etxeko giroan (familiako ospakizunetan) eta erlijio-giroan (elizan, komentuetan edota horien inguruan antolatutako ekimenetan).

Villabona 2011 urtea. 200 urte baino gehiago pasa dira. Herri honetan du

egun Bertsozaleen Elkarteak bere egoitza nagusia (Mintzola Fundazioarekin batera, Subijana Etxean). Bertaratzen bagara emakume asko ikusiko ditugu, bertsogintzan, izugarritzako lana eta ahallegina egiten, besteak beste bertsolaritzan emakumeen presentzia areagotzeko eta generoaren gaia aintzat hartua izan dadin. Emakume eta gizon askok egingakoaren fruituak jada agerian daude. Azkenengo 30-40 urteotan emakumeen presentzia nabarmentzen hasi da, besteak beste, bertso eskoletan (ikasle zein irakasle gisa) edo txapelketetan (partehartzaile, zein epaile edo gai-jartzaile moduan). Ikusezin izatetik, itzal izatera pasa dira. Izen eta izaera propioak agertzen dira: Arantzazu Loidi, Kristina Mardaras, Maialen Lujanbio, Estitxu Arozena. Atzetik beste batzuk.

Ibilbide honetan data bat dago gorri markatuta: 2009ko abenduaren 13an Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelduna bihurtzen da. Emakume txapeldun baten irudia oso indartsua izan da eta zenbaitek berdintasunaren helmuga lortuta ikusi dute. Parekotasun eza, diskriminazioak iraganeko kontuak dirudite. Euskal gizartearen

egoerari begiratuta eta euskal kulturaren erreparatuta, hori horrela dela sineste-ko nahikoa argudiorik ba al dugu? Bertsolaritza ezin da ulertu euskal gizartea eta euskal kultura ulertu gabe. Horregatik, zaila dirudi pentsatzea gizarte eta kultur esparruan diskriminazioa dirauen bitartean beste esparru batzuetan, bertsolaritzan kasu, horren isla ez aurkitzea.

Oraindik ere, argi eta garbi ikus dezakegu genero sistemak duen pisua gizartean, bizimoduan, bizipenetan, ikaste prozesuan, gizarteratze prozesuan, identitate eraketan, aurreikuspenetan. Guzti hori gure motxilan sartzen dugu, sormen prozesuan zehar gainean darabagun motxila berberean. Eta motxila hori oso ezberdina izango da emakume edo gizonezkoentzat. Gizonezkoek bereganatutako motxilan tresna gehiago izan dituzte bertso munduan aurrera egiteko: euren egiteko moduak, euren agerpena, euren diskurtsoa, euren hitzak eta doinuak, euren planta, bat etorri dira bertsolari batetik, oro har, espero zitekeenetik. Bertsolaritzaren inguruan eratutako definizio nagusiak (kanona) bat egin du gizonezkoen esperientzia eta moldeekin. Aldiz, emakumezkoen motxilak bertsoak egiteko osagaiez beteta egon arren, ez dute topatu modua haien bizipenetatik sortutako diskurtsoak, hitzak eta doinuak eredu bihurtu eta taularatzeko. Gehienetan «kanona» simulatzera jo behar izan dute.

XX.mendean plaza-gizonaren eredu nagusitu zen. Eta XXI. mendean? Aurreikuspen bat: bertsolaritza definizio berri baterantz doa eta, honetan, emakumeen ekarpena ezinbestekoa izango da. Emakumeen bizipenez, emozioez, doinuez, nahiez eta aldarrikapenez beteko dira bertsoak, denon bertsolaritza irudikatu ahal izateko.

* Emakumeak, genero eta bertsolaritzari buruzko informazio gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista



«Kosta egiten da Emakumeen lorpenak aitortzea, eta txapela irabaztea, sinbolikoki, pauso bat da»

Azken urteotan emakumeak leku egiten joan dira bertsogintzan, eta Maialen Lujanbio Zugasti (Hernani, 1976) horren adibide adierazgarriena da. 15 urterekin hasi zen bertsotan, ikastolako bertso eskolan. 2003. urtean Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketa irabazi zuen, eta hirutan lortu du Txapelketa Nagusiko azken saiorako sailkatzea: 1997, 2001 eta 2005ean. Duela bi urte irabazi zuen Bertsolari Txapelketa Nagusia, BECen jokaturako final gogoangarrian, txapelketa horren aurreneko emakume txapelduna bilakatuz.

TEXTO: EDURNE BEGIRISTAIN; FOTOS: KARLOS CORBELLA

Garai batean Euskal Herriko Txapelduna emakumea izan zitekeela zaila zen pentsatzea, eta orain, geroz eta emakume bertsolari gehiago dago. Zein hausnarketa egiten duzu?

Bilakaera hori testuinguru batean jarri behar da. Uste dut bertsolaritzan jardun edo erabaki giltzarri batzuk egon direla emakumearen gaur egungo presentzia azaltzen dutenak. 30 urte atzera eginda, bertsolaritzaren biziberritze edo superbibentzia instinto batek bultzatuta sortu ziren bertso eskoletan dago hazia. Hazi inportanteena horixe da. Bertso eskolaren sorrera horrek gauza asko eragin ditu, eta uste dut bertsolaritzaren gaur egungo egoeraren giltzarri izan dela. Izan ere, bertsolaritza biziberritu, gaztetu eta aldarazi zuten bertso eskolek, eta gazte belaunaldi horren baitan ulertzen dut nik emakumearen presentzia ere. Gazte belaunaldi oso bat, haurtxoak eta gazteak, bertsotan ikasten eta bertso munduan parte hartzen hasten da, eta gaztetxo horiek, neska eta mutilak, elkarrekin abiatzen hasten dira bide hori eskoletan eta bertso eskoletan. Horren ondorioz, eskola arteko txapelketetan neska eta mutilak batera hasten dira plazara azaltzen. Hori da testuingurua, eta inflexio puntu horren ondorio bezala ikusten dut nik emakumearen presentzia bertsolaritzan.

Gizartean ere emakumeen presentzia zabalduz doa alor askotara. Bertsolaritzan gertatzen ari dena ere bada gizartearen isla bat, beraz.

Bai, dudarik gabe. Bertsolaritza modu isolatu batean aztertu badaiteke ere, gizartearen parte bat da eta ezin da ulertu gizartearen baitan ematen den prozesurik gabe. Hain zuzen ere, emakumeak bertsolaritzan duen presentzia analizatu beharra dago jendaurreko jardunaren multzoan. Hamaika adibide daude: musika, politikagintza, kirola,... Alor bakoitzak berezko ezaugarriak ditu, baina ukazina da testuinguru orokor batean kokatu behar dela emakumearen presentzia hori.

Zu lehen bertsolari emakume txapelduna izan zara. Nola bizi zenuen esperientzia hori? Zein garrantzi ematen diozu lehen emakume txapeldun izateari?

Lehenengo emakume izatearen garrantzi hori, pertsonalki, ez dut marka edo ikur bezala bereziki hartzen. Baina beste plano batetik begiraturik, alegia, nire izen propioa horren gainetik ahaztuta, eta ikuspegi orokorrako edo historiko batetik hartuta, uste dut inportantea dela emakume bat txapeldun izatea, horrek izan dezakeen erreferentzialtasunagatik. Txapela janztea oso sinbolikoa da, eta goreneko postu horretara iritsi bazara



«Ikusi da bertsolaritza oso lur emankorra izan daitekeela. Jende sentsiblea dago, geldiezina dena eta jakinmina duena, eta eztabaida dezente sortzen ari da gure artean»

esan nahi du ibilbide bat eginda dagoela, eta horrek aditzera ematen du gero eta emakume gehiago dabiltzala plazatan eta batek, oraingo, lortu duela txapeldun izatea. Baina horrez gain, uste dut inportantea dela gaur egungo gaztentoentzat eta umeentzat erreferentzia bat delako, eta beraientzat oso irudi normala eta naturala izango delako emakume txapeldun bat ikustea. Gaur egungo umetxoak hasiko dira ezagutzuz emakumeek bertsoan egiten dutela, eta txapeldun izatera iristen direla, eta beraientzat nahiko ohikoa izango da hori.

Txapela irabazi zenuenean, esan zenuen lehen emakume txapelduna izatea mugarritxoa zela. Arestian esanda-koagatik esan zenuen, ezta?

Bai, aipatu ditudan arrazoiengatik esan nuen. Nolabait aitortzen delako emakume bat horretara iritsi daitekeela. Lehen esan dudan moduan, jendaurreko jardunetan emakumearen hitzari zilegitasuna, balorea eta garrantzia ematea kosta egiten da. Emakumeoi ere kosta egiten zaigu, maila inkonzientean inertzia asko dauzkagulako eta jaso dugun kulturaren eragina handia delako. Uste dut kosta egiten dela igertzea eta aitortzea emakumeek egiten dutena. Eta kasu honetan, txapela irabazi izana, bada, sinbolikoki, pauso bat.

Bertso txapelketek garrantzia handia dute, eta hori errekonozimendurekin lotua dago. Emakumeen kasuan, txapelketak nolabait baliagarriak izan dira euren errekonozimendua lortzeko?

Ez dakit bakarrik emakumeen kasuan gertatzen den. Nik uste dut txapelketa bat azterketa moduko bat dela edozein bertsolarientzat. Beharbada gero txapelketek ez dute izaten saioek duten garrantzi berbera, bertsolariak bere lekua plazatan irabazten duelako, eta bertso-gintzaren gunerik inportanteena ez delako, berez, txapelketa. Txapelketa da gunerik ikusgarriena eta sinbolikoena, baina benetan jokatzeko dugun lekua ez da txapelketa, asteburutako plazak baizik. Eta errekonozimendua, komunikazioa eta arraskata hor lortu behar dira. Txapelketak ezaugarri bereziak ditu, lehiaketa delako azken batean, eta behar bada horrek emakumeekin duen lotura aztertu daiteke. Baina emakume eta gizonen arteko bereizketatik harago, aztertu beharko litzateke ezaugarri pertsonalek eta txapelketaren ezaugarriek bat egiten duten ala ez. Hala ere,

gure jokaleku bereziena bestea da, alegia, plaza.

Bertsolaritza gizonen balioetatik gertuago dago, eta maskulinontzat jotzen diren ezaugarriak izatea baloratzen dira gehien: sendotasuna eta ziurtasuna, besteak beste. Emakumeak bertsolaritzan sartzeak zer ekarri du mundu horretara? Zein ekarpen egin dio?

Uste dut oraindik goiz dela hori aztertze-ko, kopuru aldetik oso emakume gutxi gaudelako oraindik eta nahiz eta gero eta gehiago garen, emakume gehienak nahiko gazteak dira, hasberriak. Ni helduenera-takoa naiz, eta nire burua oraindik gazte-tzat daukat, beraz, pentsa! Esan nahi du-dana da oraindik goizegi dela benetako eragin bat ikusi ahal izateko. Egia da bertsolaritzan emakumeak sentsibilizatuak gaudela oso gai honekin, eta gogoeta dezente egiten ari gara: bertsolaritzaren moldeak, ezaugarriak eta formak aztertu eta non kokatzen garen ikusi, bakoitzak bere ezaugarri pertsonalak nola jartzen dituen jendaurreko rol horretan, tal-ka egiten duten ala ez aztertu... Egia da bertsolaritzak prototipo maskulinoekin lotutako ezaugarriak izan dituela gaur arte. Baina baita hizketari dagozkionak ere. Alegia, baditu ezaugarri jakin batzuk hitzaren eta argudioaren erabilerari eta kantuari dagozkionak, eta ez direnak, es-preski, gizonetzkoen ezaugarriak, bertsolaritzarenak baizik. Une honetan azter-tzen ari gara ea horiek bertsolaritzaren berezko ezaugarriak diren edo gizonena izan den bertsolaritza batek garatutako ezaugarriak diren.

Bertsotan gazte hasi zinen. Gaztetatik izan zenuen bertsolari emakumearen kontzientzia hori, ala beranduago har-tu zenuen?

Nire emakumetasunaz jabetzea eta kontzientzia hartzea plazan bizi izan dut ezinbestean, 15 urterekin hasi bainin-tzen bertsotan. Hasi nintzenez ez neukan kontzientzia handirik, eta eskerrak, iragaizgaitza nengoelako gai hauekiko, nahiko lasai neramalako. Egia da hasta-penetan egoera berezi batzuk gertatzen zirela: gehienak mutikoak ziren eta ni neska bakarrenetakoa nintzen, eta harre-manetan nabaritu egiten zen diferentzia hori. Baina, aldi berean, esan behar dut niretzat hori dena oso naturala izan zela, ni ohituta nengoelako horrela mugitzera. Hortaz, hastapen hori ez zen hain traumatikoa izan, ni nahiko testuinguru nat-uralean sentitzen nintzelako. Denbora-


rekin, egoerak, sentsazioak eta kontrae-sanak aztertzen joaten zara, eta ohartzen zara gertatzen dena ez dela doan gerta-tzen, atzean badagoela arrazoi ikusezin bat. Gauza horiekin denborarekin jabetu naiz. Oholtzan bertan ere eragin didate kontzientzia hori, emakumeoi zegozkien gaiak eta emakumeoi zegozkien galde-rak beti niri egiten zizkidatelako, eta nik ideologikoki mamitua izan baino lehen, kanpotik asko eragin zait gai honi buruz pentsatzera.

Gaur egun politikoki zuzena izaten da bertso saio bakoitzeko gutxienez emakume bat egotea, eta badirudi kupo minimo batekin antolatzen direla jaialdiak. Zer iritzi duzu?

Egoera aldatzen ari da. Uste dut une oso interesante batean gaudela, hasten ari diren bertsolari neska gazte asko daude-lako, eta horrek aldaketa dezente egotea eragiten ari delako eta eragingo duelako. Adibidez, aldatzen ari da generoaren bar-rietate hori, emakume eta gizonak tau-la gainean egotea planteatu ez egitetik, hurrengo pausoa izan da birplanteatzea egoera hori, bai antolatzaileen eskariz, bai publikoaren eskariz. Izan ere, arrisksua zen bertso saioetan emakume bakarra egotea nahikotzat ematea, eta emakume hori izatea emakume guztien ordezkaria. Uste dut pauso hori gaintzera goazela. Orain da unea taldeak ere desberdinean egiten hasten direla, eta posible dela saio batean bi emakume egotea nahiko modu naturalean. Horrek ekarriko du emaku-mearen irudiaren aniztasuna, eta emaku-me mota desberdinak egotea.

Etorkizunari begira, bertsolari emaku-me gisa, zein erronka ikusten dituzu?

Egindako bideari erreparatuta, baikor izateko arrazoiak baditugu, oso den-bora gutxian asko aldatu direlako gau-zak. Bertsolaritzak oso esparru itxia eta maskulinoa ematen zuen, hermetikoa, eta hori aldatu egin da. Ikusi da bertsolaritza oso lur emankorra izan daite-keela. Jende sentsiblea dago, geldiezina dena eta jakinmina duena, eta eztabaida dezente sortzen ari da gure artean. Zen-bakiei eta itxurari dagozkion gauzak al-datzen ari diren bezala, funtsezkoak ere aldatzen doaz, alegia, ez bakarrik kopu-rua, baita tematika ere. Gure inertzia ikusezin horiek pixkanaka atzematen goaz eta aurre egitea lortzen ari gara. Bertso munduan gai honekin interesa duen jende asko dago, eta uste dut bide ederra dugula aurretik.



ELKARTU: Oztopo arkitektoniko eta digitalik gabe

Elkartu, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten pertsonen Federazioa, 1981ean lanean hasi zen integrazio eta normalizazioaren alde. Emakumeen batzordeak, beste ahalegin bat ere egiten du bazterkeria bikoitzak ekartzen dituen arazoak konpontzeko: desgaitasuna duten hiritarrak eta emakumeak izatea. Rakel Barroso eta haren aginduetara dagoen taldea teknologia berriekin bat egin dira, betiere, hutsune digitala saihesteko eta enplegu arloan ahalik eta etekin handiena ateratzeko baliabide horiei. **TEXTO: CARMEN RUIZ DE GARIBAY; FOTOS: KARLOS CORBELLA**

Desgaitasun gaian errebindikazio mugimendua gara», dio Rakel Barrosok. Borrokazalea, saiatua eta erakundeen bulegoetako borroketan eskarmentu hartua da. «Elkartu GKE mistoa da baina berdintasun gaia lantzen dugu, ez dugu desgaitasuna duten emakumezko elkarteetan antolatu nahi, zeren erakunde honetatik, eta gizarteratzetik, zeharkakotasuna lantzen saiatzen baikara, hau da, emakume desgaituak sar daitezela desgaitasun

markarik gabeko emakumeen elkarteetan».

Elkartuk hogeitabost urteko eskarmentua du. Gipuzkoako Diputazioarekin sinatutako hitzarmen bati esker mantentzen da gehien bat. Euskadiko Elkartearen Konfederazioko eta Estatu mailako Coamificioa-ko partaidea da. Elkartu-ren datu-baseak 3.800 pertsonari dagozkion datuak ditu. Administrazioekin elkarlanean aritzen da eta Hirietako Arkitektura -oztopen

Desagerpenerako eta Irisgarritasunerako legean parte hartu du.

«Hau guztia ez da haatik sortzen, atzean errebindikazio lana dago eta gure eskaerak, behin lortuta, biztanleria guztiak aprobetxatzen ditu, batez ere mugikortasun murriztua dutenek». Ikuspuntu horretatik, Rakel Barrosok deritzo, egia esate aldera, botere publikoei dagokien lana egiten ari direla. Eta baieztapen hau indartzeko, garatzen dituzten zenbait programa azaltzen ditu: lehenbizikoari



JAURLARITZAK BERDINTASUNERAKO LEGEA ALDATU DU DEFENTSA ERAKUNDEA EMAKUNDEREN EGITURAREN BARRUAN OSOKI TXERTATZEKO

Gobernu Kontseiluak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) aldaketa onartu du Berdintasunerako Defentsa Erakundeak Emakunderen egituraren barruan osoki txertatzeko. Legea onartu zenean, Defentsa Erakundeak bere funtzioak betetzeko Administrazioarekiko erabateko autonomiaz jardun zezala xedatu zen. Hala ere, Emakunderi atxiki zitzaion, eta Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu ez arren, aurrekontu-mendetasuna eta bitartekotza ezarri zen Administrazioarekiko, Emakunderen bitartez. Legearen aldaketa honen bitartez, Defentsa Erakundeak Emakunderen egituraren barruan beste zerbitzu bat gisa osoki txertatu da. Emakunde Defentsa Erakundearen artean eskumen-gatazkak gertatzea eta egitekoak gainjartzea saihestu nahi da aldaketa honen bitartez. Horretarako, zuzendaritza bakarria ezarriko da, aipatu erakunde autonomoaren zuzendariaren esku, hain zuzen ere. Aldaketa honekin zerbitzuaren kudeaketa hobetzen da, eta bere funtzioak eta zerbitzua optimizatu egiten dira. Eraginkortasunean ere hobetzen da, izan ere, zerbitzua mantentzen da baina honen gastu ekonomikoa modu nabarmenean jaitsiz.

BERDINTASUNERAKO VIII GUNEAREN BALANTZE POSITIBOA

Beren egituretan berdintasunerako helburuak dituzten berrogeita hamarretik gorako erakundeek parte hartu dute Berdintasunerako VIII Gunean. Emakunde koordinatutako Gune hau Ekainaren 1etik 21era bitartean gauzatu da EAEko hiru hiriburuetan, 15 euskal udalerritan eta sare sozialetan. Bertan, 65 jarduerak burutu ziren «Emakumeen partaidetza erabaki eta

eragin arloetan» lemapean. Ikastaro, prestakuntza jardunaldi, sentsibilizazio hitzaldi, tailer, topaketa, mintegi, azterlan aurkezpen eta erakusketek harrera ona izan dute jendartearen, beraz, balantzea positibotzat har dezakegu. Urtero ospatzen den topaketa hau 2004 urtean hasi zen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko erakunde, talde eta entitateen lana bistaratu eta indartzeko helburua lortu du. 65 jarduerak burutu ahala, Emakunde lan mintegi bat antolatuko du Gunearen gai nagusiari buruzko emaitzak eta ondorioak jaso eta bateratzeko asmoz.

KRISIA ETA BERE ALTERNATIBAK GENEROAREN IKUSPUNTUTIK EHUKO UDAKO IKASTAROETAN

Ekainaren 29 eta 30 bitartean burutuko da «Crisis económica: análisis y alternativas desde el enfoque de género» (Krisi ekonomikoa: analisisa eta alternatibak generoaren ikuspuntutik) izeneko ikastaroa UPV /



EHUko Udako Ikastaroen barruan. Ikastaroak Emakunderen kolaborazioa du eta María Silvestre, Emakundeko zuzendaria, izango da gidari nagusia. Bi jardunaldi hauetan zehar, gai adituak krisiak emakume eta gizonengan izaten ari den eragina ebaluatuko dute Donostiako Miramar Jauregian. Halaber, krisitik ateratzeko hartutako neurrietan generoaren eragina aztertuko dute. Krisiaren arazoak eta ardurak analizatzeko dituzte, bai eta horien eraginak emakume eta gizonen bizitza eta lanetan, hala hemen, nola munduan zehar. Krisiak eskaintzen dituen aukerei buruz, krisiaren eraginak gutxitzeko eta egoera honekin amaitzeko hartutako neurriei buruz eta bereziki, erreforma laboralak emakumeengan dituen eraginei buruz arituko dira adituak. Azkenik, generoaren ikuspuntutik alternatibak aztertuko dituzte.


Hizlari hauek parte hartuko dute: Itziar Alkorta, EHUko Irakaskuntza eta Kalitateko errektore ordea; Lina Gálvez, Sevillako Pablo Olavide Unibertsitatekoa; Teresa Pérez del Río, Cadizeko Unibertsitatekoa; Mertxe Larrañaga, EHUko Ekonomi eta Enpresa Zientzietako Fakultatekoa; Amaia Pérez Orozco, Ekuadorreko Gizarte Zientzietako Fakultate Latino Amerikarreako; Carmen Castro García, genero aholkularia eta «Singenerodedudas»-eko zuzendaria.

BEGIRA BATZORDEAREN DEKRETUAREN ALDAKETA

Ekainaren 10ean ospatutako Zuzendaritza Batzordean Begira Batzordearen dekretuaren aldaketa egin zen. Honen helburua da Berdintasun Legearen 27. artikuluari ere erantzuna ematea, batzordeak publizitatean ez ezik, komunikabideen arloan ere eragina izan dezan. Begira-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordea aholkuak emateko eta elkargune izateko organoa da: komunikabideen eta publizitate-euskarrien bitartez hedatzen den publizitatea aztertuko du eta horri buruzko aholkuak emango ditu, publizitate eta komunikazioaren eremuetan sexuaren ziozko bereizkeria mota oro erazteko. Begira Batzordea komunikabide publikoetako edukiei buruzko kode etikoak egon daitezkeen arduratuko da, eta horretaz gainera, komunikabide pribatuekin akordioak egitea sustatuko du, komunikazioa berdintasunaren printzipiora egokitzen lagun dezaten.

ENPRESA ARLOKO HIZKUNTZA AZTERTU DU EMAKUNDEK GIDA BATEAN

Emakunde, arlo ezberdinetako hizkuntzan, emakume eta gizonen presentzia aztertzen dutenetako azken gida argitaratu du. Oraingo honetan, Eulàlia Lledó Cunill-eren «Guía de lenguaje para el ámbito de la empresa y el empleo» (Enplegu eta enpresa arlorako hizkuntza gida) argitaratu eman du. Ikerketa honen ardatza, lan eta enpleguko hainbat dokumentu ezberdinak aztertzean datza.



Ikerturiko materialaren artean, zenbait web daude, esaterako, Euskal Administrazioarena, Eroski eta Elkargirena: lanen edo zerbitzuren bat kontratatzeko administrazio klausulen orriak, hainbat sindikatutako dokumentuak, Confebask-en prentsa-ohar bat, edo eraso sexualak, sexuagatik erasoak eta lan erasoak prebenitzeko, tratatzeko eta kentzeko BBK-en protokoloa. Tarte bat uzten dio ere ofizio, kargu eta profesioen izendapenari eta baita lan eskaintzei.

Aztertu den material zati batean, emakumeak inbisibilitu edo baztertzeko zituzten lan esparruak joerak aldatzen ari direla frogatzen da. Baina ikerturiko material gehienak, bi sexuak izendatzeko, maskulinoa erabiltzea du ezaugarri.



Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista

- Pakistaneko Hushe araneke emakumeak garapenerako ereduak. Felix Baltistan Fundazioaren lana.
- Lehen orrian egotea merezi duten emakumeen soslaiak.
- Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak.
- Jarduera interesgarrien agenda.
- Beste emakumeekin konektatzeko atala.
- Iritzia emateko lekua.

Edizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimatzailea: Gráficas Santa María. Lege Gordailua: VI 465-2010